

## LARRAUNDIK AMERIKETARA JOANAK



## LEKUNBERRIK UR TRATAMENDURAKO ESTAZIOAN EGINDAKO KONTRATAZIOAREN ONDOREN NAFARROAKO AUZITEGI ADMINISTRATIBOAREN EPAIA

Ertzila Partzuergoa osatzen dugun Kontzejuok (Etxarri, Arruiz, Iribas, Mugiro, Alli) eta Larraungo Udalak, abuztuan zehar Nafarroako Auzitegi Administrazioak Iribasko Ur Tratamendurako Estazioari buruzko epai bat jaso dugu. Lekunberriko Udalak Ur Tratamendurako mantentze lanak irregularki konkurtsora atera eta *Hydroambiente* enpresari esleitu ondoren, auzitegiak orain arrazoia eman digu.

Ertzilako Kontzejuok eta Larraungo Udalak, Ur Tratamenduko instalazioaren mantentze lanak esleitzeko kontratazio plegua errekurritu genuen, hau ez baita Lekunberriko Udalaren eskumena, Ertzila Partzuergoarena baizik. Ondoren, Lekunberriko Udaleko bi zinegotzik beste errekurtsio bat aurkeztu zioten kontratazio pleguari.

Auzitegiaren esanetan, *“gai honi dagokionez, Lekunberriko Udalak aldebakartasunez eta gehiegikeriaz, Ertzilarenak diren eskumenak bereganatuz jokatu du. Epaitegi honek bere harridura azaldu beharra dauka, errekurritutako kontratazio esleipena bertan behera geldituz gero, ondorio ekonomikoak eduki ditzakeelako”*. Gainera, ondorengo dio: *“Ezgaia den organo batek onartutako ekintza administrazioak zuzenbidean baliogabeak dira”* eta hauxe ebazten du: *“Indarrean dauden legeei loturik ez egoteagatik, pleguaren onespina eta lizitazio prozeduraren irekiera baliogabe jotzea”*.

Honela, Ertzilako Kontzejuok eta Larraungo Udalak esaten genuena berretsi du Auzitegiak. Epai hau positiboki baloratzen dugu, Ertzilak altan egiten den ur hornidura zuzenki kudeatzeko eskumenak berresten dituelako, hau da, harrera instalazioak, hoditeria, tratamendu instalazioak eta ur-biltegiak egin eta mantentzea.

Azkenik, Ertzila Partzuergoaren Lehendakaria eta Iribasko Kontzejuo Alkate andrea izanik, badakit oraindik Auzitegian errekurtsioa aurkezteko aukera bada goela Lekunberriko Udalaren aldetik, eta honen epaia edozein litzatekeela ere, Ertzila Partzuergoa osatzen dugun guztiok (Lekunberriko Udala; Alli, Arruiz, Etxarri, Iribas eta Mugiroko Kontzejuok; Larraungo Udala eta Nafarroako Gobernuak) elkarrekin lan egitea behar-beharrezkoa dela pentsatzen dut, Ertzila Partzuergoa eta bere bitartez herritarrei ematen diegun zerbitzua ahalik eta hobekien kudeatzeko.

Camino Garralda (Iribasko Kontzejuo Lehendakaria).

## LARRAUNGO ALKATE ETA UDAL GOBERNU AUTORITARIOEN AURREAN, LARRAUN BIZIBERRITZEA DA GURE AUKERA

Agintea nagusikeriaz erabiltzeari esaten zaio autoritarismoa. Zure eskubideak murrizten dituenari bere boterea erabiliz, jarrera intolerantea, atzerakoia eta kultura demokratikoari mespretxu egiten diona da autoritarismoa. Gaur egun, mundu mailan gisa horretako hainbat adibide dugu: Donald Trump, Pablo Casado, Albert Rivera... Larraunen ere balore autoritarioek inboluzio sakon batean sartu dute Udala, eta argi esan behar dugu Alkate eta Udal Gobernu autoritarioak ditugula. Zertan oinarritzen gara hori esateko:

1) Legealdian zehar Udal batzarretan onartzen dituen proposamenak eta konpromisoak ez dituzte garatzen horretarako interesik ez badute (berdintasuna, etxebizitza, lehen sektorea, Kontzejuekin elkarlana, euskara plana...); beraz, udal batzarraren erabakiek ez dute balio, eta beraiek erabakitzen dute zein gauzatu eta zein erabaki zakarrantzira bota.

2) Batzarretan galdera/eskaeren atala mugatu egin digu alkateak, eta berak jarritako muga gainditu dugula iruditzen bazaio udal batzarra bukatutzat eman eta altxatu egiten da mahaitik, nahiz galderak eta eskaerak egiteko eskubidea dugun.

3) Udal informazioa (aktak, erabakiak, ...) publiko egiteko eskatu dugunean, edozein Udaletan bezala, ezezko biribila jaso dugu.

4) Herritarrek edo EH Bilduk Udalean eskaerak egin izan dituztenean, hilabeteak pasatzen dira erantzuteko, erantzuten baldin badute.

Lau adibide jarri ditugu, baina askoz gehiago daude. Legealdia hasi eta berehala sumatu genuen zer-nolako rrrerak zeuden Udal Gobernuan; adibidez, gazte talde batak gazteen ahalduntzea eta sormena bultzatzeko partida bat irekitzeko eskatu zuenenen aurrekontuetan, Udal Gobernuko zinegotzi den Pedro Manuel Barberiak honako hitz hauek esan zituen eskaeraren aurrean: ...abizenak ikusita, ikus daiteke las nuevas juventudes de algunos dirrela, eta diru hori parrandarako dela...". Hori izan zen argudio bakarra gazteen eskaerari ezezkoa emateko.

Legealdi honetan gertatzen ari diren egoera antide-mokratiko horiek ez dira soilik Larraundarrak taldearen ardurak, Larraungo Elkartek ere badu erruaren zati handi bat, Martin Juanena buru duen talde politikoak babes politiko osoa eman baitio Larraundarrak taldeari, eta babes horretaz baliatu da bere autoritarismoan sakontzeko. EH Bildutik argi dugu udal irekia, parte-hartzailea eta gardena sortzea beharrezkoa dela. Bada garaia Larraun biziberritzeko eremu guztietan, eta EH Bildutik hainbat dinamika jarriko ditugu martxan helburu hori lortzeko.

Larraungo EH Bildu.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.





04 ERRIGORA

05 BERTSO BERRIAK: Maddi Urrea.

06 ELKARRIZKETA: German Lasarte eta Miguel Lasarte.

10 ELKARRI MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Urriko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Plastikoen erabileraren murrizketa.

20 KULTURA

22 KIROLA

28 PLAZATIK PLAZARA: Euskaraldia.

30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako irizti eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Maider Agirrebarrena, Maixabel Huarte, Lorea Lasarte, Nere Iriarte, J.M. Zabaleta, Inma Etxarri, Errigora, Camino Garralda.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra



MAILOPE EUSKARALDIAREKIN BAT!

## Eskatu zure Errigora saskia!

Dagoeneko Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina egiten den 5. urtea da. AEKak, Ikastolen Elkartek, Sortzenek, Zazpiak Batek eta Errigorarekin batera elkarlanean martxan jarritako kanpaina honen helburua Nafarroa hegoaldeko baratzearen uztarekin saskiak osatu eta Nafarroan euskara zigortuen dagoen eremuan, jasotako diruaren %25 euskara suspertzeko bideratzea da. Baina, euskarari laguntza emateaz gainera, bertako ekoizleen eta kontsumitzaileen artean zubiak sortzea ere bada asmoa.

Azken bi urteetan 14.000 saski banatu dira. Larraunaldian 33 saski banatu ziren iaz. Bi saski ezberdin daude aukeran. Eskariak Larraungo AEKan nahiz Errigorako atarian ([www.errigora.eus/](http://www.errigora.eus/)) egin daitezke urriaren 25etik azaroaren 14ra bitarte.



KUTXA BELTZA



KUTXA TXURIA



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**ANTONIO CARRARO**

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



### ASIAZ LIZTORRA BISITAN

Joan den hilean asiaz liztorraren bisita izan genuen gurean. Lekunberriko Aralar kaleko etxe gorrietako baten erlauntza azaldu zen teilatupean. Auzokideen artean ikusmira handia sortu zuen. Udala eta Nafarroako suhiltzaileei abisua pasa arren, oraindik bertan jarraitzen du.



### ISTRIPUA LEZEGALDEN

Irailko azken larunbatean espeleologo batek istripua izan zuen Iribasko Lezegalden. Lezetik irteten ari zela soka hautsi eta 10 metroko altueratik erori zen. Suhiltzaileen eta Larrialdi Zerbitzuetako laguntza beharrezkoa izan zen zauritua lezetik atera eta Iruñera garraiatzeko. Zorionez 45 urteko espelelogoa arriskutik kanpo dago.



### ARTZIPRESTAZGO EGUNA

Uharte Arakil eta Aralarko San Migel Aingeruei ongi etorria egin zieten joan den irailaren 2an, San Migel Santutegian ospatutako Artziprestazgo Egunean. Larraun, Lekunberri, Araitx, Betelu, Basaburua, Imotz eta Ultzamako 23 gurutze bertaratu ziren. Urtetik urtera jende gutxiago biltzen bada ere, erromeria horrek bizirik jarraitzen du.

## bertso berriak Mailoperi jarriak: Maddi Urra (Irurtzun)

**Sanfermin hauetan ez da aittu salaketa larriegirik**  
komunikabide desberdinek  
ubeltzen duten egirik,  
sistema, gizarte gaixo honek  
estaltzen duen aurpegirik  
nahiz ta beti haizeak daraman  
ezkutuko kasurik.

Gasteiz, Donostia edo Bilboko  
kasuak **ikusirik**  
gaur egungo justizia babesa  
hutsala dugu **alferrik**,  
sistema honen sotanapean  
ezin gelditu **gorderik**  
ukabila altxata oihuka  
bada Borroka **aldarririk!!!**

Doinua: Badira hiru aste.

**Hurrengoarentzako oina:**  
Maratoiak Plazaola bidea  
irailean hauspotzen

**Puntuak:**  
Ohitura, kultura,  
lotura, eskura.



# “Bakardadea zen Ameriketean artzain ibiltzearen alderdirik gogorrena”

*Kanada, Kalifornia, Los Angeles... Joan den mendean, Ipar Ameriketako estatu ezberdinetara joan ziren lan bila larraundar asko eta asko. Gehienak zenbait urtez lan egin eta gero etxera bueltatu ziren, baina beste asko bertan gelditu ziren. German Lasarte eta Miguel Lasarte etxarriarrak 28 eta 25 urterekin joan ziren artzain.*

**German, zu zein etxetan jaioa zara?**

**German:** Ni Etxarriko bordan jaio nintzen, Zapateneko bordan. Ne gurasoak etxarriarrak ziren, biak.

**Zenbat anai-arreba zineten?**

**German:** Gu zazpi ginen, lau anai eta hiru arreba. Ni gaztenetakoa. Hiru anaiek izandu ginen Ameriketean.

**Eta Etxarriko eskolara joan al zinen?**

**German:** Bai, zerbait bai, baina bordan izan giñun guk unibertsitatea! Denetatik bazen han, astoak, ardik, behorrak, oiloak...

**Umetatik etxeko lanetan laguntzen ibili izan zineten, ezta?**

**German:** Bai, bai. Ni gehina! Beste denak alde ein zin! Anai zaharrena mendie joan zen eta gero beste bat de bai. Ni hamalau urte arte joan nintzen eskola. Gero, gabeko eskola joan giñoan, hiru edo lau urtez.

**Eskola bukatu eta etxean gelditu zinen baserriko lanetan...**

**German:** Bai, baserrin 25 urte arte eondu nintzen. Mendin e aittu nintzen 22 edo 23 urte nittula eo holakon bat eta gero 25 urtekin, Ameriketara.

**Ordurako anaiak han al zeuden?**

**German:** Bai, bai, haik aspaldin han zeen, Juanito eta Manuel. Juanitok lau urte pastu zittun han eta gero etorri eta berriz bueltan joan zen. Ordun ez zen kontratoik, gero hiru urtetako kontratoak eitten hasi zeen.

**Eta zuk joateko erabakia hartu zenuenean anaiekin hitz egin al zenuen? Edo nola antolatzen ziren bidaia haiek?**

**German:** Bai. Haik joateko eta joateko esaten zin. Eta nik hots ein nien eta ordun haik esan behar zin nausi betei, harrek ni erreklamatzeko. Eta nausik patzen zun biajea eta gio, urten burun, gastu guzik kobratzen zittun.

**Gurasoak eta gainerako anai-arrebak hemen utzita alde egitea ez zen erraza izango...**

**German:** Pena haundii... Baserrin arreba gelditu zen.

**Hegazkinez joan zinen?**

**German:** Bai, espezial! Beño behatzi aireportu pastu nittun. Hemendik Madrilea trenen joan ginen, Bilbotik ateata, gero, Madrildik Oportora, handik Azoreetara, gero Pittsburgh, New York, Chicago, Denver, Colorado, Utah eta Nevada.

**Miguel:** [Kar, kar, kar] Nik bi bakarrik hartu nittun, hemendik New Yorkea eta New Yorketik Kaliforniara.

**German, zu lehendabizi Nevadan egon zinen, Elyn...**

**German:** Bai. Han arrantxo bateko



Miguel Lasarte eta German Lasarte etxarriarrak dira eta lan bila joan ziren Ameriketara. Arg.: Labrit.

patroiak kontratatuta joan nintzen artzain. Hark 15.000 ardi zittun. Eta artzain kuadrille bat giñen harentzako lanen. Lesakakoak, Nartartekoak... Las Vegaseko desertuan eta Indianan ibili izan nintzen ardiekin. Artzain bakoitzek lote bat hartzen zun ta mendire... Maiatzen umek eitten zuin eta gabero jaiotzen zeen 100-150 axuri. Ardi haik separatuk uzten zien be umekin ikasi bittarte eta gero, pixke-pixke juntatuz joaten dee...



### **Eta zu han ardiekin batera gau eta egun...**

**German:** Askotan elurre gainean jartzen zun... Eta gaur hemen eta bihar beste leku batea muttu behar ziñun, jana zegoen lekure...

### **Baina gurdirik ba al zenuten lo egiteko?**

**German:** Ez, ez, hori kanperoak izaten zun, beño askotan ardiekin batea ein behar ziñun lo. Holaxeko elurre igual eta han etzaleku bat besteik ez ziñun, eta sartzen zinen oinetako eta guzti, gainekoan izoztu igual! Gainetik bi manta eta lona bat jartzen giñun ure ez pasatzeko... Udan bakar-bakarrik mendin, 4.000 metroko mendik zien han...

### **Ardi horiek haragitako ardiak ziren...**

**German:** Bai, haikin ezin zen gaztaikin, basauntzek beño gaiztogoak zien, ez ziñuzen harrapatuko! [Kar, kar, kar].

### **Zenbat denbora eman zenituen Elyn?**

**German:** Han bi uda ein nittun, 20 hilebete. Bildotsak Kalifornie eamatten zittuen, aurreako zieank eta nik hue de ikusi behar nula esan nion nausiri. Eta bildotsak erostea etorri zen harekin joan nintzen Kalifornia, Jon Bidegarai izena zun hark.

### **Bertako nagusi gehienak euskal jatorrikoak al ziren?**

**Miguel:** Gehienak bai!

**German:** Frantses euskaldunak, asko.

**Miguel:** Ameriketako gobernuak sekuleko launtzen eman emen zittun, haragie falta zuelako. Eta artzaiei re artaldea erosteko bankuk errestasunek ematen zittun eta diru-launtzek izaten zien. Han komunal haundik izaten zittuin eta ardi jarriz keo honbeste lur uzten zittuin.

### **Eta zer moduz ibili zinen Kalifornian?**

**German:** Espezial! Ardik beti ondo-ondoan eta nahiko jana izaten zen. Udan betzitako dena jaten zuin eta eun guzin jai. Ardiri beittu besteik ez giñun eitten. Garai hontan, hango erremolatxa earto zelaietan makinak pasa eta gero gelditzen zen guzie aprobetxatzen zuin.

### **Kaliforniatik etxera bueltatu zinen...**

**German:** Bai, etorri beharra giñauken ta! Ez baitziuen uzten, hiru urte t' erdi pastu bainittun! Hemen e ordun lana bazen. Ni karnizerin hasi nintzen "Bedaiokin". Horrekin ikasi nun nik ofizioa. Eta 1966. urte inguru hortan jarri izan nun nik ne karnizerie eta geroztik hemen.



Goian German Lasarte eta behean Miguel Lasarte, Ameriketean ateratako irudietan.  
Arg.: Mitxausenea Kultur Etxea



*“Artzainen soldata  
Ameriketako soldata  
normal baten %25  
zen”*

400 lagun inguru elkartu ziren joan den irailaren 15ean Lekunberrin egindako topaketan.  
Arg: J.A. Garaikoetxea

**Miguel, zu ere Etxarrin jaioa zara...**

**Miguel:** Bai, Apezenen. Gu zortzi senide ginen, sei anai eta bi arreba. 13 eo 14 urte arte joan nintzen eskola. 30 bat laun juntatzen ginen Etxarrik eskolan. Beño ni gaztetatik kanpoan hasi nintzen lan eitten. Lehendabixina Aldazko harrobireko bidea eitten ibili ginen. Gero soldaduske ein eta mendin hasi nintzen. Iratin lehendabixina eta gero Frantzin beste hiru urte. Nei Ameriketako lana ez zitzen gorra in, Iratin basoko lana askos e okerragoa zelako. Iratin argitzeako lanea jeki eta ilundu arte. Eta jateko babak bakarra, gosaltzeko babak, bazkaltzeko babak eta apaltzeko patatak. Ez dakit bizik e nola aguantatzen giñun!

**Eta nolatan erabaki zenuen Ameriketara joatea?**

**Miguel:** Frantzin lanen baztandar koadrille batekin ibili nintzen lanen. Eta haitako batek bazula anai bat Ameriketara eta berak e joan behar zula esan zin. Nik esan nion: “Motel ni re joanen nok!”. Eta horrela joan nintzen Kalifornie. Han Errege Eunin atea eta maiatza arte Mendiz mendi ibili nintzen. Los Angelesetik hurbil pasa eta Lancaste-

rreko desertuetatik barna Nevada-raino oines! Nik astoa banun jana eta ure eamateko.

**Orduan zuk ere ez zenuen gurdirik... Kanpin denda astoaren gainean jarri garraiatzeko eta kitto!**

**Miguel:** Bai. Hiru urte t´erdi ein nittun nik han artzain eta gero beheira jaitsi nintzen. Los Angelesea. Aspertu ein nintzen han, ez ziñun deuse ikasten eta jornalak e baju zeen. Los Angelesen, txerri hiltegi baten ein nun lana beste sei urtez.

**Hor ere egun osoa ematen zenuen lanean?**

**Miguel:** Ez, zortzi orduz. Sekuleko txerri pille hiltzen zeen, eunen 4.000 txerri. Eta han diru asko irabazten zen. Han pisu baten hiru laun bizi ginen. Ne bi anaiek e Ameriketara etorri zien eta jardineru aittu zien. Haik nik eaman nittun, Joaquin eta Francisco, bixkik.

**Baina haiek ere hasieran artzain joango ziren...**

**Miguel:** Bai, noski! Hiru urte t´erdi in zittin haik e eta gero baimena eman zien beste lan baten hasteko. Haik han geldittu dee!



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA -**

**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**Allprox**

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34



**Zu bueltatu egin zinen ordea...**

**Miguel:** Bai, jaiotetxi etxekoa zen, beño hutse zeon eta hemengo anaiek hots ein zin etortzeko eta etortzeko. Hiltegiko lana de gorra zen, eskulana zen dena eta etortzea erabaki nun. Hemen ezkondu eta ardik jarri nittu gazta eitteko eta hola bizittu ginen.

**Artzain aritu zinetenean, oporrik hartzen al zenuten?**

**Miguel:** Nahi izanez keo ematen zuin.  
**German:** Beño ordaindu gabekoak. Irabazitakoak hamabost eunetan gastatzeko? Ez, ez, seittu lanen!

**Eta jatekoarekin nola moldatzen zineten?**

**Miguel:** Ongi, nahi adina giñun!  
**German:** Nevadan axuri ttikin bat hiltzen giñun eta lau eunetako nahiko haragi!  
**Miguel:** Eurre bildu eta lurren zuloa ein eta sue eitten giñun. Jana nahikoa ematen ziguen. Nei nausi esan ziten: "Beitzak Miguel, kozinazak, hemen jende aunitz gaizkittu in dia, haragia bakarrik jateatik. Nik pastuko diat denetik eta kozinazak!"  
**German:** Dutxaik ez zen han. Balsan bat tokatzen bazen biden arropa garbittu eta bainatzeko ongi, beño bestela igual hilabete ia dutxatu bai. Nik gogoan dauket, uztailen 14 baten, goizen esnatu eta hankak hotz-hotzak eta toldoa kendu eta metro erdiko elurre...

**Animalia basatiak ere inguruan izango zenituzten...**

**Miguel:** Desertuan koiole asko zeen. Sekuleko zalapartak ateatzen zittuin. Guk erriflea eamaten giñun izutzeko. Axurik jatea hurbiltzen zien.  
**German:** Eta puma gaben sartzen zeen eta hamabost axuri hiltzen zittuin. Eta katamotzak ingurun ikusiz keo tranperoi abisatu eta haik tiroz botatzen zittuin.  
**Miguel:** Artzak e bazien. Nei gau baten, lo negoa tokitik 20 metroa ardie jan zien. Eta bi zakurrek ne oben sartu zien ikatuk, beittu ze defentsa neuken nik!

**Eta ikararik ez zenuten pasatzen?**

**Miguel:** Gaztego joan ziren haik

okerrago pasa zuen. Batzuk badie suizidatuk e!

**Zer zen gogorrena?**

**Miguel:** Bakardadea, eunek eta eunek inor ikusi bai! Hilabete pasa joaten ginen oines animaik ikusi bai, mendiz mendi. Hoi zen hoi aspertzea eta bakardadea!

**Garai hartan, artzainek soldata onak al zituzten?**

**Miguel:** Artzainen soldata Ameriketako soldata normal baten %25 zen. Beño hemengo soldatakin konparatute asko zen.

**Zergatik erabaki zenuten bueltatzea? Inoiz damutu al zarete?**

**Miguel:** Ni ez naiz damutu.  
**German:** Nahiko dirue ekarri giñun ta! [Kar, kar, kar,]. Ongi bizitzeko bakotxe bee herrin hobena.



## Ameriketean izandako Euskal Artzainen topaketa Lekunberrin

Euskal Artzainak Ameriketean Elkarateak Lekunberrin egin du aurten bere urteroko topaketa. Ameriketean artzain ibilitako 400 euskaldun inguru elkartu ziren joan den irailean Lekunberrin. Harreraren ondotik meza berezi ospatu zen parrokan, gero Basakaitz taldearen dantza emanaldiaz gozatu zuten eta eguerdian frontoian elkartu ziren bazkaltzera. Arratsaldean German Lasarte omendu zuten. Ekitaldia gurean ospatzeak, gure ibarreko artzainei omenaldi berezia egiteko balio izan du. Baita askorentzako ezezaguna zen informazio bilketa egin eta joan den mendeko gure herritarren bizitza kontakizunak ezagutzeko ere. Inma Etxarri, kultur teknikariak egindako ikerketa lanaren arabera, 55 izan ziren gutxienez azken mendean Larraundik Ameriketara joandakoak. Horietako askoren argazki bilketa ere egiten hasi da, bailarako ondare hori galdu ez dadin.

## Turismoa



●● Pello Azpirotz

Kaixo, Andrea, zer moduzko uda igaro duzu? Niri oso azkar pasatu zait eta ikasturte berriari aurre egiteko gogotsu natorkizue. Polemika handia pizten duen gai bati buruz hitz egingo dut oraingo honetan: Turismo eredua. Nabaria da azken urte hauetan gure inguruetara datorren turista kopurua handitzen ari dela. Turismoa ona dela diote politikari batzuek, diru gehiago biltzen dela eta hori onuragarria dela denontzako. Adibidez, Gaztelugatxera oinez joateko bideak jendez goraino egoten dira azken urte hauetan, "Game of Thrones" bertan grabatu zenetik. Bisitari kopurua kontrolatzeko postu bat jarri behar izan dute biderearen hasieran eta erreserbak egin behar dira udako egun gehienetarako.

Baina masifikazioa dakarren turismo eredu honek kalte ugari ere badakartza. Donostian arazo larria daukate erabiltzen diren apartamentu turistikoekin, espekulazio arazoak. Bertan bizi den jendearentzat bereziki kaltegarria da bertan sustatzen ari diren turismo eredua, prezioek gora egin baitute nabarmen bai alokairuei eta baita oinarrizko baliabideei dagokienez ere. Gainera turismo masifikatu eredu hau defendatzeko erabiltzen den beste argudioetako bat izaten da turismoaren igoerak lanpostuen sorrera dakarrela. Lanpostuak bai, baina nolakoak? Prekarioak eta epe motzekoak. Zein da nahi dugun turismo eredua?

Gainera, kalte ekologikoak ere badakartza modu egoki batean ez baldin bada arautzen eta kontrolatzen. Aurten *Nature Climate Change* aldizkarian aurkezturiko lan baten arabera, turismoak jada abereek edota autoek bezainbeste kutsadura sortzen dute munduan.

Turismoaren alde nago, baina nire ustean jasangarria eta arduratsua izan behar du. Noski, ekonomikoki bere pisua dauka turismoak eta bere beharra daukagu, baina kontrolatzeko neurriak hartu beharko liratekeela uste dut (natur-guneak babestu, bertako biztanleak gehiago errespetatu...). Zuk zer uste duzu, Andrea?



●● Andrea Etxarri

Aupa, Pello! Uda polita, turismoa eginez hein batean. Nire defentsan esango dut gure sen nomadak eta gizar-teko modak bultzatua izan dela. [Kar- kar- kar]. Betidanik egin da turismoa, baina nola aldatu da? Egia da turismoa egiteko ohitura eta modua asko zabaldu dela, eta lehen gutxi batzuek egiten zituzten bidaiak luzeak orain populazioaren ehuneko handi batek egiteko nahia eta gaitasun ekonomikoa duela.

Turismoa orokorrean hazi dela argi dago, ez soilik guregana datozen turistak, baita guk kanpora egiten duguna ere. Saia gaitezen, turismo "masifikatu" horrek dakartzen onuretan pentsatzen.

Lehena, bidaien prezioa baxuagoa da, hau da, honi esker maila ekonomiko baxuagoko pertsonak urrutiko lekuetara bidaiatzeko aukera dute. Bigarrena, ziurtasun handiagoz bidaiatu dezakezu, turista kopurua altua izatearekin guztia kontrolpean duten pertsona talde handia baitago. Hirugarrena, zoazen tokira zoazela zerbitzu guztiak eskaintzen dizkizute, "etxean bezala" egon zaitezten. Batzuk jartzearren.

Bestalde, aipatu duzun eragin ekologikoari dagokionez, denak dira negatiboak: ingurumenean (bertakoengan, faunan eta floran) dituen kalteak, baliabide naturalen xahutzea (oporretan inoiz baino baliabide gehiago gastatzen dugu: ura, erregaia, janaria, opariak...), eta nola ez, egiten ditugun desplazamendu guztiak sortzen duten inpaktu klimatikoa. Jende askok urrutiko tokiak aukeratzen ditu gainera, eta hauetara joateko hegazkina hartzen du, gehien kutsatzen duen ibilgailua.

Zuk esan bezala, ekonomialari talde batek adierazten du guretzat "errentagarriagoa" den turismoa lortzea dela helburua, hau da, jende gutxiago baina gehiago gasta dezakeena. Diruarekin erosiko al digute, ba, beste planeta bat?

Nire ustez, turismoa jasangarriagoa izan dadin beste proposamen aproposagoak beharko ditugu: zer moduz datoren iraila arte denok gure herrian egiten badugu turismoa?







**Gari Arraztio Estanga**  
Urriaren 3an, 2 urte.  
**Aiara Arraztio Estanga**  
Urriaren 27an, 5 urte.  
*Zorionak Gari eta Aiara!  
Ongi pasa zuen urtebetetze egunetan!  
Muxu haundi bat etxekoan partez.*



**Irati Goikoetxea Aldaregia**  
Urriaren 13an, 4 urte.  
*ZORIONAK IRATI!!! Oso ongi pasa zure egunean!!! Muxu pillo bat Elene, aita eta amatxoren partez!!!*



**Ane Buldain Garzaron**  
Urriaren 10ean, 11 urte.  
*Zorionak politte eta oso ongi pasa zure urtebetetze egunean.  
Muxu haundi bat, etxekoan partetik.*



**Jone Castrillo Cruz**  
Urriaren 23an, 10 urte.  
*Zorionak guapa!!  
Oso ondo pasa!  
Atalluko familia.*



**Egoi eta Izarne Eskamendi**  
Urriak 26 eta 28, 8 eta 10 urte  
*Zorionak bikote!! Oso ongi pasa zuen egunetan eta kontuz ibili marrazoekin!!  
Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Kaieten partez.*

**Ugaitz Zubillaga Sasiain**  
Irailaren 21ean, 10 urte.

*Zorionak motorzale!!! Zure egunean ongi pasako zenuela espero dugu. Segi beti bezain jator Ugaitz! Muxu handi bat etxekoan partez.*



**Ibai Eraso Gorrotxategi**  
Irailaren 22an, 7 urte.  
**Lander Eraso Gorrotxategi**  
Urriaren 21ean, 9 urte.  
*Zorionak bikote! Asko gozatu zuen eguna eta muxu erraldoi bana etxekoan partez...  
Muuuuak!!!*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarra  
Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
salcitxak,  
sukaldatareko platerak.  
Etxera eramateko  
zerbitzua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea Nº7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88  
[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)





### SAGARRAK

Bailaran sagar asko alferrik galtzen dira eta auzolanean sagarrak bildu eta zukuia egiteko asmoa dugu.

#### SAGARDIEN JABEA:

Nahi duzu zure sagarrak biltzea eta aprobetxatzea?

#### BOLUNTARIOAK:

Auzolanean lan egin eta zuku natural gozoa etxeratu nahi duzu?

#### HARREMANETARAKO:

618 255 041 - [araizkozaporea@gmail.com](mailto:araizkozaporea@gmail.com)

### BADATOR BIGARREN URTEZ ARAIZKO ZAPOREEN PERIA

Urriko azken igandean, 28an, Araitzen egingo den baserritar, ekoizle, eta zerbitzuen ferian parte-hartzeko gonbita egiten die Araizko zapoeren sor-markaren sortzaileek, bailarako, baserritar, artista eta artisauai. *“Bailaran, bertan ditugun produktu osasungarriak, lurrarekin eta animaliekin errespetuan ekoiztuak, baserrietatik eta etxeetatik plazara atera nahi ditugu; intxaurrak, azak, porruak, gaztak, jogurtak, gurina, marmeladak, ogia, ukenduak, saskiak, makilak, apaingarriak... Etxean duzuen plaza-ratu! Bertako baserri eta etxeak gorai-patu nahi ditugu, bertako jakinduria, aberastasuna plaza-ratu”*. Urriaren 19an amaituko da postua jartzeko izen emateko epea. Ferian parte hartzeko izen emango duten laborari, artzain, etxe-koandre, artista nahiz langile horiek eskuorri batean agertzeko aukera izanen dute. Bertan baserri edo etxearen izena, telefonoa eta eskaintzen dituen produktu edo zerbitzuak zerrendatuko dira. Gainera, enpresa, denda eta nekazaritza-turismoentzako gehigarri bat izango du horien logoa, telefonoa eta zerbitzuak aurkeztuz. Ferian postua jartzen dutenei, bazkarirako bi lagunentzako gonbidapena emanen zaie. Eman izena urriaren 19a baino lehen 618 255 041 telefono zenbakian edo [araizkozaporea@gmail.com](mailto:araizkozaporea@gmail.com) e-postaren bitartez.





## TXARO GARATE, KONTXI ARRAZTIO ETA AINHOA IRIARTE OMENDU DITUZTE ARAITZ-BETELUKO EGUNEAN

Euren banakako ibilbidean ibarrean aurrera eramandako ekimenak nabarmendu zituzten antolatzaileek Txaro Garate, Kontxi Arraztio eta Ainhoa Iriarteri egindako omenaldian. Baina batez ere, Araitz-Beteluko Egunaren antolaketan urte luzez egindako ahalginatik omendu zituzten. Aurten, Atallun ospatu zen ibarraren eguna eta artisau azokaz gainera, taioak dastatzeko aukera izan zen. Bertako ikasleek ere ikasbidaiarako dirua biltzeko postutxoa jartzeko aprobetxatu zuten eguna eta Euskaraldiaren aurkezpen ofiziala egin zen izen-emateko epearen irekierarekin batera.



## NAFARROA OINEZERA JOATEKO AUTOBUS ZERBITZUA ESKAINIKO DA

Urriaren 21ean Nafarroa Oinez ospatuko da Altsasun, eta Euskara Zerbitzuak Mitxasenea Kultur Etxearekin batera autobus zerbitzua eskainiko du. Beteluko Indianoetxetik goizeko 08:45ean irtengo da eta Lekunberrin geldialdia egingo du goizeko 09:00etan.

16 urtetik beherakoek, adinez nagusia den pertsona batekin joan beharko dute eta 16 urtetik gorakoa izan arren adin txikikoa izanez gero, gurasoen baime-na beharko du.

Urriaren 18an amaituko da izen-emateko epea. Horretarako Araizko eta Beteluko udaletara jo dezakezu eta Euskara Zerbitzura (948 50 44 00) edo Mitxasenea Kultur Etxera (948 60 45 82) deituta ere izen emateko aukera izanen duzu. Autobus txartela 12 eurotan salduko da. Leku mugatuak dira, beraz mugi eta hartu zure txartela!

## NAFARROAN EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ESKATZEKO MOBILIZAZIOAK IZANEN DIRA URRIAREN 27AN IRUÑEAN

Datorren 27an, 17:00etan hasita, Iruñean eginen den mobilizazioan, euskara Nafarroa osoan ofiziala izatea eskatuko da. Bertan parte hartzeko deialdia egin du Kontseiluak. Hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuan 32 urtean aldatu ez den euskararen legea aldaraztea da helburua, nafar guztiei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko dien ofizialtasuna deklaratzuz.





# Tirita baten indarra

Zazpi urte pasa ziren, zazpi urte zeramatzan hor, bizitza osoa, egunerokotasun berean murgilduta, egun oso txarrak ez horren txarrak eta pare bat onak izaten zituelarik. Egunerero esnatu, eguneroko probak eta eguneroko zereginak eta egun onetan berriz, jolas bat edo beste. Baina egun hura berezia zen, ezberdina.

Bata zuriko emakumea aitatzok eta amatxorekin zegoen hitz egiten, berak atetik ikusten zituen. Hori ez zitzaion gustatzen, amatxok eta aitatzok emakume horrekin hitz egiten zutenean, askotan, gela txikira eramaten zuten, eta bakarrik egoten zen. Denak mozorroarekin, beldurra ematen zioten. Batzuetan bera ere mozorrotzen zuten eta lo geratuko zela esaten zioten, egun horietan aitatzok eta amatxok beste-tan, baino tristeago egoten ziren, urduri baleude bezala eta berari hori ez zitzaion gustatzen. Gero egunak pasatzen zituen berriro ere gela txikian, bakarrik, bere gelara eramaten zuten arte. Berari bere gela gustatzen zitzaion ez zen inoiz bakarrik egoten eta amona joaten zen bisitan Andereñoak gauzak erakusten zizkion, bera bezala ume gehiago zeuden eta beraiekin jostatzen zen, ongi zegoenean noski. Amatxok eta aitatzok ere ohea zeukaten eta berarekin egiten zuten lo. Orduan ez zuen beldurrik.

Baina oraingoan ezberdina zen, emakumea aitatzok eta amatxorekin zegoen hizketan eta aitatzok negarrez zegoen, baina ez zen beti bezala, bere urtebetetzea zenean bezala egiten zuen negar, urte bat gehiago



Arg: Unsplash.

elkarrekin ospatzen zutenean bezala, egiten zuen negar baina pozik zegoen. Berak ez zuen ulertzen oso ondo, baina bazekien ez zutela gela txikian sartuko eta pozik zegoen.

Urdinez jantzitako gizona sartu zen bere gelan, gizona bere laguna zen, gizona gustatzen zitzaion. Besoko kablea kendu zion gizonak eta tirita jarri zion, koloretakoa, berari gustatzen zitzaiona. Eta beste bat jarri zion kopetan. Triste ez egoteko tirita zen, gela txikian jartzen zioten tirita bezalakoa. Baina esan zion hori desberdina zela. Tirita hori superheroiairen tirita zela. Ez zuen ulertu baina tirita berria zen eta superheroia baten marrazkia zeukan eta bera pozik zegoen.

Amatxok eta aitatzok gelan sartu ziren poz-pozik eta etxera eramango zutela esan zioten, eta bera ere pozik jarri zen. Gauzak jaso zituen, maleta handian sartu zituen denak, gauza asko zeuzkan etxera eramateko. Autoan sartu zen eta den-denek agur esan zioten, besarkadak eman zizkieten eta festa bat egin zuten, txokolatezko pastela ere jan zuen. Egun oso-oso onetan bakarrik jaten zuten pastela. Hori gustatu zitzaion.

Gauen iritsi ziren etxera, nekazua zegoen eta aitatzok ohean sartu zuen eta amatxok ipuina kontatu zion. Begiak itxi zituen eta lo hartu zuen.

Baina gau erdian esnatu zen, etxera joan nahi zuela oihukatuz, leku hura arrotza zen beretzat, zaratak ezberdinak ziren, beste usain bat zegoen, ez zitzaion leku hori gustatzen, ez zuen ezagutzen. Bere gela nahi zuen, edo bere gela txikia, berdin zitzaion, baina etxera joan nahi zuen. Orduan amatxok agertu zen gelan eta besarkatu egin zuen, amatxorekin beldur gutxiago zeukan. Berriro hartu zuen lo amatxoren besoetan.

Egunak pasa ziren eta etxe berriak beldur gutxiago ematen zion, bere gelan "Superman" jarri zuen, tiritan bezala. Handitan "superheroia" izan nahi duelako, edo agian urdinezko gizona bezala izango da, superheroia txiki gehiagoren laguna, baina hori beste istorio bat da.





# Agur ama, agur Maritxu Betelu

Abuztuaren 4an nire ama, Maritxu, hil egin zen goizeko zortziak inguruan, nik 60 urte bete nituen egunean. Bere eskua nire eskuen artean eman zuen azken arnasa, lasai joan zen. Hori bai, hil aurretik nire arrebei utzi zien enkargua nire urtebetetzean nik ere jasotzeko bere aldetik oparibat, ez zitzaion hori ere ahaztu. Izugarrizko memoria eta buru ona zituen hil arte. Bizitza luzea, 88 urte, esperientziez eta bizipenez bete. Aita 18 urte lehenago hil egin zen eta ordutik, Maritxu bakarrik bizi izan zen bere Donostiako etxean.

Aita bizi zen bitartean, biok batera, bidaiatu zuten munduko hainbat tokitara eta aita hil ondoren, behin dolua eginda, biziberritu eta bakarrik bizitza bete-betea bizitzeari ekin zion. Berriz ekin mundua ezagutzeari, gauza berriak ikasi, jende berria ezagutu. Urteak aurrera joan ahala, gero eta biziago ikusten nuen ama. Bidaiatu asko baina inoiz ez zen nahikoa izan, beti gehiago ikusteko gogo. Bere hitzetan, hiru bidaiak geratu zitzaizkion egin gabe, alegia, ez zuen inoiz transiberiarrean bidaiatu, ez zuen gauerdiko eguzkia gozatu eta ez zuen aurora borealik ikusi.

Sasoian egon zen hil baino zortzi aste lehenago arte eta bere hitzetan, eguna ematen zuen "punto de cruz eta punto com" delakoan artean, izan ere, aita hil eta gero informatika eskolak hartzen hasi eta zaletu zen; "power pointak" eta "fotoshopa" zituen gogokoen, eta bidaiak egin ondoren argazki bildumak moldatzen zituen, musika eta guzti. Eguberri-



tan, berriz, familia osoko argazkiak lantzen zituen egutegiak egiteko.

Ama, bestalde, oso fededuna izan zen, bere gurasoak eta senarra izan ziren bezala. Ez zuen inoiz zalantzarik izan baina, gu ume ginenan ez bezala, ez zen inoiz gu konbentzitzen saiatzen. Errespetu osoa adierazten zuen besteekiko eta horixe bera, niretzat oso irakasgai garrantzitsu izan da.

Urteak kostatu egin zait niri, neure ama ez ezik, Maritxu Betelu pertsona ezagutzea. Eta behin biak neurri batean ezagututa, biak bat egitea. Izan ere, ume nintzenan, ama miretsi, batzuetan, amarekin haserretu, besteetan. Ama zorrotza zen eta, aita, aldiz eroso sentitzen zen umeen heziketaren ardura amari utzita, ama menderatzaile edo dominantea eta aita pasiboa. Amak hartzen zituen erabakiak, jartzen zizkigun mugak, debekuak eta

zigorrak eta, baita oso ongi zaindu ere. Amak horrela adierazi izan zuen bere maitasuna ia hil egin arte, aitak, aldiz, ferekak eta besarkadak ematen zituen.

Kostatu zitzaidan nire ama ulertzea, ikustea, berak maitasuna adierazteko zuen modua. Pertsona oso bat izan zen, bere alde onak eta bere alde txarrak izan zituena, mina eta poza eman zizkidanak, hotza eta zurruna, batzuetan, maitasun eta esker onekoa beste batzuetan. Bizitza osoa josten, etxean lanean. Hutsune asko egin zituen baina, askotan ere, asmatu.

Azken urteotan, ordu asko pasatu nituen bere ondoan, astero Donostian bisitatu eta baratzekoak zein perretxikoak eramaten nizkion. Nik ere horrela adierazten nion nire maitasuna. Eta bere azken orduak, arnas agoniakoz beteak, bere ondoan pasatu nituen. Hartu nuen bere eskua, horrenbeste gauza egin zituen eskua, etengabe lanean jardun zen eskua, nire amaren eskua eta, aldi berean, Maritxu Beteluren eskua. Hartu eta laztandu, hartu eta eutsi azken momentuetan ere. Berak eman zidan niri eskua mundu honetan ibiltzen ikasten laguntzeko, nik eman nion eskua mundu honetatik alde egin zuenean. Orain ulertzen zaitut ama, orain ulertzen zaitut Maritxu Betelu. Eskerrik asko eman didazun guztiagatik, bihotzez. Ama Maritxu, maitasunez, agur.



# Plastikoaren erabilera murrizteko behar larria

*Plastikoak eragiten dituen kalteak izugarriak dira eta dagoeneko nabarmenak dira. Gure eskualdean, plastikoaren erabilera murrizteko legearen neurriak iritsi diren arren, asko dira oraindik biltzen ez diren erabilera bakarreko plastikoak.*

Plastikoa ekoizterakoan isurtzen diren gasek berotegi efektua eragiten dute. Baina askoz ere handiagoa da

erabili ondoren eragiten duen kaltea. Erabiltzen den plastiko kopuruaren oso portzentaje txikia berrerabiltzen

da eta gainerako guztia zelai, erreka eta itsasoetan pilatzen doa. Gainera, plastikoak 450 urte iraun dezake desegin gabe.

Adituen arabera, gizakiak egotari aurre egiten ez badio 2050. urtean itsasoan arrainak baino plastiko gehiago egonen dira. Gaur egun, dagoeneko, izugarriak dira itsasoan plastikoak eragindako kalteak. Arrainek plastiko zati txikiak jaten dituzte eta horietako asko hil egiten dira. Ura berotzen denean berriz, plastikoak osagai toxikoak isurtzen ditu uretara eta arrainen organismoetara iristen dira toxiko horiek. Ondorioz, gizakion elikagai katean amaitzen dute toxiko horiek. Itsaso eta erreka ertzetan pilatzen den plastikoak berriz, alga eta landareei zuzenean eragiten die, horien hazkundera galaraziz. Urtero zortzi milioi tona zabor iristen dira ozeanora. Hondakin horien %80 botilak eta plastikozko poltsak dira, baina denetarik aurki daiteke.

Chris Jordan argazkilaria bere lan taldearekin batera martxan jarritako proiektu batean Iparraldeko Ozeano Barean dagoen Midway artxipelagoan gertatzen ari dena hartu zuen ozeanoan gertatzen ari dena azaltzeko adibide gisa. Milaka tona plastikoz inguraturik dago uhartedi hori eta dagoeneko bertan bizi diren itsas hegaztiak ezinezkoa dute bizirik jarraitzea. Bertan bizi diren hegazti-kumeak hil egiten direla ohartu dira eta barrenak ireki eta gero euren organismoetan su-pizgailuak, tanpoiak, xiringak eta mota guztie-





tako hondakinak aurkitzen dituzte. Chris Jordanek ekoiztutako "Albatross" izeneko ikus-entzunezkoa dagoeneko sarean dago ikusgai.

Nature aldizkarian orain dela zenbait hilabete kaleratutako ikerketa lan berri baten arabera ere, Ozeano Barean dagoeneko uharte erraldoi bat sortu da pilatutako 80.000 tona plastiko eta hondakinekin. 1,6 milioi Km<sup>2</sup> dauzka, Frantziak duen tamainaren hirukoitza. Ondorioz, itsasoko biodibertsitatea galtzen ari da eta espezie ugari abiadura bizian desagertzen ari dira.

Baina ez dugu horren urrutira joan beharrik kutsaduraren ondorioetaz ohartzeko. Horrelako adibideak gurean ere aurki ditzakegu. Geroz eta gehiago dira Euskal Herriko hondartzetako ertzetara iristen diren plastikoak. Eta gure eskualdeko erreketan ere aurki ditzakegu. Plastikoz beteta bizi gara. Berrerabiltzen ez den plastikoz beteta. Eskola eta plaza inguruetan goxokien plastikozko bilgarri ugari aurki ditzakegu. Kirol probetan ingurumena zaintzearen kontzientzia handitzen ari bada ere, oraindik probak egin ondoren plastiko ugari gelditzen da mendietan. Eta nekazari eta abeltzainek bildutako belar bolak ere plastikoarekin estaltzen dituzte.

Eta pankartak? Zenbat pankarta jartzen dira gure eskualdean urte baten buruan? Denak plastikozkoak, eta gehienak ez dira berrerabiltzen. Dagoeneko zenbait herritar gaiarekiko sentsibilizatzen hasiak dira. Urko



Plastikoa edonon aurki dezakegu gure inguruan. Arg.: Labrit.

Gorostidi araztarra: *"Pankartak garai batean ohialekin egiten ziren. Hasiak dira plastikoak ordezkatzeko material birziklagarriak ekoizten nahiz eta oraindik gehiegi ez den zabaldu. Baina bien bitartean, bestelako bideak topatu beharko genituzte. Plastikozko pankarta bat egiten denean, gero jaso eta hurrengo batean atzealdea erabili esaterako".*

Horietako pankarta asko eta asko ez dituzte biltzen jartzen dituzten pertsonak. Horietako zenbait bildu izan ditu Jolanda Areitio beteluarrak: *"Bildu gabe gelditzen diren horietako asko hautsi ahala gure zelai eta erreketan amaitzen dute. Horren inguruko kontzientzia zabaldu beharko genuke gurean eta pankartak jartzen dutenek gero biltzeko konpromisoa izan dezatela. Geroz eta plastiko gutxiago erabili orduan eta gutxiago ekoiztu beharko da".*

Joan den uztailaren 1ean indarrean sartu zen hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legea. Uztailaz geroztik debekaturik dago plastikozko poltsak doan ematea edozein merkataritza establezimendutan. Gure eskualdeko saltokietan ere, dagoeneko, kobratu egiten dituzte plastikozko poltsak. Helburua

pixkanaka plastikozko poltsen eskaintza saltokietatik desagertzea da.

2020. urtetik aurrera guztiz debekaturik egonen da saltokietan plastikozko poltsak eskaintzea. Bien bitartean, plastikozko poltsen salmentatik ateratako irabaziak ingurumen-xedeetarako bideratzen hasiko dira. Poltsez gain, 2020tik aurrera, debekaturik egonen da ere, erabilera bakarrek plastikozko plater, baso, taza eta janari-erretiluak saltzea, material biodegradagarri egindakoak izan ezik.

Ostalaritzan ere eragina izango du onartutako Foru Lege berriak. Ostalaritzan ere berrerabiltzea sustatuko baita diru-laguntzen eta zerga-pizgarrien bitartez. 2028. urtean ur-ontzien %40 berrerabiltzea da helburua, garagardo ontzien %80 eta freskagarri-ontzien %70.

Neurri horiek guztiak lagungarriak izango diren arren, ez dira nahikoak izango egoera konpontzeko. Egunerokoan erabili ohi ditugun plastikoak ordezkatzeko alternatibak bilatzen hasi beharko genuke.

Beraz, norbanakoaren egunerokotik hasita, badago gurean ere zer aldatua!



# EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



*Nor da Nor?*



Aurreko alean kaleratutako argazkia  
Lekunberrin ateratakoa da, 1960. urte  
inguruan

**Ezkerretik eskuinera:** Manoli Balda,  
Maria Zatarain, Josefa Mujika, Maria  
Osanbela eta Presen Galarza.

nor da nor?

*Nor da Nor?*



*Nortzuk azaltzen dira  
argazkian?  
Non ateratakoa da?  
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako  
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu  
eta kudeatuko dugu.



**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007

[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Allí.

Tfnoa: 609 130 555

MAILOPE EUSKARALDIAREKIN BAT!

JAIK

Irailean jai giroan!

Irailean ere festa ugari izan genituen eskualdean. Atallun, Allin, Etxarrin, Intzan, Arruitzen, Baraibarren eta Uitzin festa giroan ibili ziren joan den hilean. Errondak, ume-jokoak, herri-bazkariak, dantzaldiak... Uitzin ez ziren falta izan urteroko herri-kirol saioak eta Baraibarren aurten 28 pintxo aurkeztu zituzten pintxo lehiaketan. Sariduna Mertxe Iriartek aurkeztutakoa izan zen. Eta aurten berritasun gisa, Baraibarko batukadak kaleak alaitu zituen. Horra hor bildutako zenbait irudi. Eta ez ahaztu oraindik ere baditugula jai gehiago. Urriaren 10etik 14era bitarte Lekunberriko Pilarika jaiak izanen dira. Egitarau osoa Agendan (32.orr.).

ARRUITZ



BARAIBAR



UITZI



ATALLU



ETXARRI



INTZA





LEKUNBERRI

## Bost sagardogile izan dira Lekunberriko Sagardo Eguneko 14. edizioan

Joan den hilean Nafarroako Sagardo Eguna ospatu zen Lekunberrin. Bertan izan ziren Nafarroako Sagardo Ekoizleen Elkarteko kideak, Aldazko Martintxonea, Lekunberriko Toki-alai, Lekarozko Larraldea, Lesakako Lindurrenborda eta Berueteko Behetxenekko Borda. Urtean 200.000 litro inguru ekoizten dituzte, horietatik litro batzuk kupelatan sarturik gelditzen dira sagardotegietara hurbiltzen diren sagardozaleek zuzenean bertatik dastatzeko eta gainerakoa botilaratu egiten da. Iazko uztaren zukua probatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek eta gainera bertako, gazta, ogia eta bestelako artisauro produktuen salmenta ere izan zen. Dagoeneko, iritsi da udazkena eta urtaro honekin batera sagardogileak sagarrak biltzeari ekingo diote. Uzta honekin egindako sagardoa edateko ordea urtarrilera arte itxaron beharko dugu.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## 96 korrikalari Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean

laz baino lasterkari gutxiago izan dira Intza-Ttutturre Kilometro Bertikaleko bigarren edizioan. 129 lasterkari izan ziren iaz eta aurten berriz, 96 lagunek lortu zuten proba amaitzea, horietatik 15 emakumezkoak. Hala ere, aurtengoan baldintza hobekak izan zituzten eta proba amaitu eta arnasa berreskuratu ondoren Ttutturrek eskaintzen dituen panoramikaz gozatzeko aukera izan zuten.

Irailaren 15ean izan zen proba eta goizeko hamarretan segundo gutxiko aldearekin irten ziren Intzatik korrikalari guztiak.

Maricruz Aragon izan zen emakumezkoetan azkarrena, 49 minutu eta 2 segundorekin. Atzetik iritsi ziren Maite Etxezarreta (00:49:55) eta Ainhoa Lendinez (00:50:35). Gizonezkoetan berriz, Joseba Diazek lortu zuen gailurrera lehenengo iristea, 37 minutu eta 15 segundo baino ez zituen behar izan. Eta bere atzetik sailkatu ziren, Asier Larruzea (00:38:17) eta Beñat Katarain (00:38:43).

Eskualdeko korrikalariei dagokienez, emakumezkoen ez zen aurkeztu. Eta izan ziren gailurreratu ziren bertako gizonezkoak. Horra hor eskualdeko korrikalarien sailkapena:

Xabi Azpirotz	(Astitz)	00:44:56
Isaac Alvarez	(Lekunberri)	00:45:04
Xabier Satrustegi	(Betelu)	00:45:23
Iñigo Lasarte	(Lekunberri)	00:45:31
Luis Mari Larreta	(Aldatz)	00:49:56
Andoni Otxotorena	(Lekunberri)	00:53:21
Ander Elizalde	(Betelu)	00:53:29
Imanol Jaka	(Etxarri)	00:54:00
Ibai Arratibel	(Lekunberri)	00:54:56
Iñigo Garaioa	(Lekunberri)	00:55:29
Asier Elizalde	(Betelu)	00:58:06
Rober Moreno	(Aldatz)	01:39:55

Informazio gehiago eta sailkapen orokorra: [www.intzattutturrekb.eus](http://www.intzattutturrekb.eus) atarian.





## 458 korrikalari baino gehiago Plazaolan korrika

Eguraldi ederra izan zuten ere Kilo-metro Betikalaren hurrengo egunean Plazaolan zehar korrika ibili zirenek. Irailaren 16an izan zen Plazaolako III. Maratoian eta XII. Maratoi Erdian, 109 eta 349 korrikalarik parte hartu zuten hurrenez hurren. Aurtengoan Maratoi Erdian korrikalari gutxienez 402 izan ziren iaz, baina lehengo urtean baino gehiago izan dira Maratoia amaitu zutenak, 109.

42 kilometroko probak Lekunberri izan zuen hasiera, goizeko bederatzietan eta ordu berean atera ziren Leitzatik 26 kilometro egin zituztenak. Bi probek helmuga bera izan zuten, Andoaingo Goiko Plaza.

Maratoian, emakumezkoetan, Eva Esnaola izan zen azkarrena, 3 ordu, 15 minutu eta 8 segundorekin. Eta bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren Angela Gonzalez (03:43:30) eta Mertxe Casas (03:49:50). Gizonezkoetan berriz, Iban Iriartek jantzi zuen txapela (02:50:05) eta Ivan Piñon (02 51 04) eta Sergio Uzkudun (02:52:42) helmugaratu ziren atzetik.

Maratoi Erdian, gizonezkoetan, Andrew Mcleod iritsi zen lehena (01:24:44) eta David Palomo (01:30:22) eta Jose España (01:32:47) denbora gutxiren aldearekin amaitu zuten proba.

Emakumezkoetan, honela gelditu zen podiuma: Oiana Ortiz lehena (01:46:05), Begoña Julian (01:51:03) bigarren eta Lide Azkue (01:57:42) hirugarren.



Aurtengoan bertako ordezkari bakarra izan dugu. Martin Askarai gaintzatarrak ordubete 53 minutu eta 42 segundotan amaitu zuen Maratoi Erdia.

Informazio gehiago eta sailkapen orokorra:  
[www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com)

### Zorrak kitatu ditu Diversport enpresak

Joan den alean Plazaolako Maratoia eta Maratoi Erdia antolatzeaz arduratzen den enpresak iaz Aralar Kanpinean zorrak utzi zituela kaleratu genuen. Bada, irailaren hasieran, urtebeteren ondoren, Plazaolako bazkide den establezimenduetarekin zituen zorrak kitatu zituen.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)

**TAXILON**



661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo  
Otamendi  
Artola

E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com)

Atallu - Araitz



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**

**948 51 30 32**



panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

# “Helburu komun bat eta norbanakoaren helburua gainditu behar dute”

*Miguel Inda judo eta defentsa pertsonaleko irakaslea da Judo Plazola Elkartearen. Aurten ere Plazola Kiroldegian heldu nahiz gaztetxoekin lanean arituko da.*

## Azaldu iezaguzu, zertan datza judoa?

Judoa borroka-arte bat da, Japonian sortutakoa. Aurkariak bata besteari teknika eta proiektzioen bitartez lurrera botatzea da helburua. Lehiaketetan ez da eskuekin eta hankekin jotzen beste borroka-arteetan bezala. UNESCOk kirol hau haurra zarenetik 14 urtera arte aholkatuena izendatu zuen, jokoaren eta dibertsioaren bitartez, norbanakoaren garapenerako oinarritzko faktoreak uztartzea ahalbidetzen duelako. Adibidez judoa psikologo eta terapeuta askok erabili ohi dute haur autistekin edo motibazio nahiz komunikazio arazoak dituzten haurrekin lan egiteko eta laguntzeko.

## Noiz sortu zen Lekunberriko lehen judo taldea?

2006an, dozena erdi neska-mutiko nirekin kirol hau ikastera ausartu zirenean. Urteak pasa ahala taldea handitzen joan da.

## Zenbat ikasle eta talde dituzu gaur egun?

Joan den ikasturtean 33 ikasle izan nituen bi taldetan banaturik eta astelehen eta asteazkenetan biltzen

*“Saioak egokitu egingo dira, ikasleen baldintza fisikoak kontuan hartuz”*

gara. Txikien taldean 6 eta 10 urte bitarteko 17 ikasle ditut eta bigarren taldean 10 eta 19 urte arteko 16 ikasle. Ikasturte berri honetan berrietasuna defentsa pertsonala izango da. Emakumezkoei eskusiboki zuzendutako taldea sortu da. Bertan, esfortzu fisiko izugarria eskatzen ez duten teknika errazak ikasiko ditugu, oso baliagarriak izan daitezkeen erasotzak izan daitezkeen egoerei aurre egiteko.

## Eta zergatik du judoak halako arrakasta gurean?

Gurasoek bere seme edo alaba judoan izen ematen dutenean, kirola egitea baino zerbait gehiago espero dute. Judo klaseetan diziplina bat dago, ezagutzen oinarritutako egitura bat, heldutasuna eta ikasleen gerrikoa. Esperientzia gehien eta gerriko gorena duten haurrek maila baxuagoko ikasleei lagundu eta irakatsi behar diete. Ikasleak ez dira aurkariak, kideak dira eta alde bate-

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARBEONDO  
HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



tik helburu komun bat eta bestetik norbanakoaren helburua gainditu behar dute.

### **Txapelketetan ere parte hartzen hasiak dira... Zer moduzko emaitzak izaten ari zarete?**

10 urtetik aurrera eta gutxienezko bi urteetako praktika izanez gero, Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzeko aukera dute. Gure elkartean ez gara bereziki lehiatzeko espezializatzen, baina gure ikasleek dagoeneko zenbait domina lortu dituzte maila errejonalean. Iaz, Espainiako txapelketan ordezkari bat izan genuen, nahiz eta gero ez zuen dominarik eskuratzea lortu, baina lan oso ona egin zuen.

### **Eta orain judoaz gainera, defentsa pertsonala...**

Defentsa pertsonala Judo Federazioio diziiplina da. Federazioak babestutako tituludun profesionalak soilik eman dezaketena eta gaur egun eskaria eta interesa geroz eta handiagoa da. Hasteko, astean saio bat ematea erabaki dugu, asteazkenetan, 19:30etik 20:30era, baina tarteka asteburuetan ikastaroak ere eskainiko ditugu.

Saioak egokitu egingo dira, ikasleen baldintza fisikoak kontuan hartuz. Ariketak bikoteka eta taldeka egingo dira, esperientzia mailaren eta gaitasun fisikoaren arabera.

### **Non eskura daiteke informazio gehiago?**

Plazaola Judo Elkarteko saioak



Lekunberriko Plazaola kiroldegian eskaintzen dira astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik aurrera. Bertara hurbil zaitzake edo neronekin harremanetan jar zaitzake (Harremanetarako: 669 953 402).





## Metabolismoa aktibatzen...

Kaixo denoi, Gaurkoan 10 elikagairi buruz hitz egingo dugu. Hauek gure metabolismoa aktibatzen lagunduko digute. Gure metabolismoaren funtzioetako bat elikagaiak energia bihurtzea da, oso prozesu garrantzitsua. Gainera, digestioan parte hartzen du, zelulen berrikuntzan, arnasketan, odolaren zirkulazioan eta gure hormonen orekan. Gure metabolismoa nekaturik bada (elikadura desegokia jarraitzen delako, estresa daukagulako...) eta ez badu lana ongi egiten, nekea, arazo muskularrak, azal lehorra, kolesterol igoera.... pisua irabazten dugu eta kasu batzuetan depresioa agertzen da. Bestalde, metabolismoa ongi badago eta aktibatzen badago energia gehiago daukagu, gure umorea hobetzen da eta pisua errazago galdu dezakegu.

### Hona hemen 10 elikagai, gure metabolismoa aktibatzeko:

- 1. Piper hauts gorria (cayena):** pipar gorri pikante honek capsaicina dauka. Substantzia honek zelulen energia bero bihurtzen du, eta gure termogenesia igotzen da, eta honekin batera metabolismoa aktibatzen da.
- 2. Te berdea:** honek antioxidatzaile asko dauzka, katekinak, teina, eta polifenolak. Hauek metabolismoa aktibatzen dute. Diuretiko ere bada.
- 3. Arabisagarra (pomelo):** fruta honek naringenina dauka, hau flabona bat da, insulina jaisten laguntzen duena eta C bitamina dauka.
- 4. Limoia:** gure toxinak garbitzen laguntzen digu eta gure gibela garbitzen du. Gibela garbi badago gure gorputzak hobeto egiten du lan. Goizero ura limoiarekin hartzea ohitura ona da.
- 5. Jengibre:** hau ere oso pikantea da. Termogenesia aktibatzen du

zeluletan. Hodi dilatatzailea ere bada (gure arteriak dilatatzeko) eta horrela odolaren zirkulazioa hobetzen laguntzen digu.


**6. Sagarra:** zuntz asko daukanez, gure digestio aparatua erregulatzen du.

**7. Kanela:** honek dauzkan antioxidatzaileak metabolismoa aktibatzen dute.

**8. Almendrak:** fruitu lehor honek kaltzio asko dauka (edari begetala ere badago) eta daukan omega 3arekin gure metabolismoa hozten du. Gainera almendrak lo hobeto egiten laguntzen digute.

**9. Kafea:** kafearen kafeinak neurotransmisore batzuk aktibatzen ditu eta honekin batera metabolismoa azkartzen du.

**10. Brokolia:** barazki honek ere kaltzio asko dauka eta C bitaminan aberatsa. Gure metabolismoa aktibatzen du eta zuntz asko dauka.



Dietista-nutrizionista, kirol elikaduran, medikuntza txinatar tradizionalan eta fitoterapia txinatarrean berezitua.

**Harremanetarako:**

608 32 19 05

neresotil@gmail.com

San Anton kalea, 12 (Iruñea),

La ventana natural belardendan.



# CONAN MOBILE



CONANek segurtasun konfigurazioa analizatzeko aukera ematen du, instalatutako aplikazioen edo etorkizunean instalatuko direnenak, aplikazio horiek erabiltzen dituzten baimenak, Internetera egiten dituzten konexioak etab. Horren guztiaren analisiak minutu inguru irauten du, baina luzatu egin daiteke instalatutako aplikazio kopuruaren arabera. App hau doan instalatu daiteke eta oso erraza da. Google Play-en sartu (Oraindik ez dago eskuragarri iOS eta Windowsa Phontentzako), deskargatu eta instalatzeko baimenak onartu baino ez dituzu egin behar. App hau erabiltzailea gailu mugikorren erabilera seguruaren garrantziaz kontzientziatzeko sortu zen.

Conan Mobile INTECOk (Komunikazioaren Teknologien Institutu Nazionala) sortutako aplikazio bat da. Bere helburua segurtasun maila egiaztatzea eta ebaluatzea da eta erabiltzaileari Android Sistema Operatiboarekin lan egiten duten dispositiboaren konfigurazio txarrei buruz informatea. Aplikazio hau osagarri interesgarria da antiterrorismo batentzako, baina ezin dugu antiterrorismo bezala salikatu bere funtzioak bestelakoak direlako.



Xanti Saigos

klik egin

# Ireki da Euskaraldian izen emateko epea

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte izanen den Euskaraldia ekimenari begira, motorrak berotzen hasteko hainbat ekitaldi egin ziren joan den hilean. Lekunberriko Kantinan Euskara Ikasleen Jaia ospatu zen. Euskara ikasle eta boluntarioek Mintzodromoan parte hartu zuten, eta gero Abereh abeslariaren eta Pantxika Lamurren antzerki saiok eskaini ziren. Amaieran opariak ere zozketatu ziren. Bestalde, Araithz-Beteluko eguna aprobetxatuz, Euskaraldiaren aurkezpena egin zuten Atallun, ekimenaren informazioa eta izen-ematearen nondik norakoak azalduz.

Izan ere, dagoeneko irekita dago izen-emateko epea. Gurean bi aukera egonen dira izen-emateko. Alde batetik, online egiteko aukera izanen da [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) atariaren bitartez. Eta bestetik eskualdeko hainbat tokitan izen-emateko inprimakiak egonen dira, Araizko udaletxean, Beteluko udaletxean, Euskara Zerbitzuko bulegoetan, Labroa Paper-dendan eta Mitxausenea Kultur-etxean.



 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA DENTRAL HORTZ KLINIKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI





**11 EGUN EUSKARAZ**  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

**EUSKARALDIA.**

**AHOBIZI edo BELARRIPREST?**

Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut? Belarriprest? Ahobizi?

**1** Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al dituzue?

**BAI**

**EZ:** Euskara die ez da zuk parte hartzeko egokia. Ularmena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, ez duen giza sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

**2** Prest al zaudete jendeak zuri euskaraz egiteko? Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiak zuri euskaraz egitea?

**BAI**

**EZ:** Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia.

**3** Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiak euskaraz soilik egiteko prest al zaudete? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonola, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

**BAI**

**EZ**

**AHOBIZI**  
Euskaraz egiten dut.

**BELARRIPREST**  
Euskaraz egitea nahi dut.

**AHOBIZI:**

*Ulertzen duenari euskaraz egiten diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza euskaraz egiten diet.*

**BELARRIPREST:**

*Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Euskaraz edo erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK.  
KOPA. BERGIZIAK.

948504352

MAILOPEKO BAZKIDEA  
IZAN NAHI DUZU?

mailope@labrit.net

**LARRAUN**

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN s.l.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com

**ARAIZKO UDALAK ONARTUTAKO AKORDIOA:**

EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Araizko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkeri politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta Ahobizi eta Belarriprest gehien aktibatzeke urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.
- Ahobiziok euskara ulertzen duten guztiakin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Udalak bat egiten du ekimena Euskal Herriko beste hainbat eragilarekin, elkarlanean eta batera garatzearekin.

**OPARITZEN DA**

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. Harremanetarako: 629 403 220 (Iñaki).

**SALGAI**

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.
- Pisu berriua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.



**ekin**  
rotulacion  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Gamendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

**ALTSASU - IRURTZUN**  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
**24 ORDUKO TELEFONOA**  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxe: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



## LEKUNBERRIKO FESTAK - URRIA

**10 | ASTEAZKENA:**

- 12:30 Meza
- 14:00 Erretiratuen bazkaria eta ondoren musika
- 17:30 Larraungo Pilota Goxua Txapelketa.
- 18:00 2018ko Kartel Lehiaketako Sari Banaketa.
- 20:00 Suziria
- 20:05 Zezensuzkoa. Iraunkorrek txaranga.
- 22:30 Gazteen afaria karpan. Gero, monologoa.
- 24:00 Trikidantz eta Etxeko Dj-a

**11 | OSTEGUNA:**

- 07:00 Herri gosaria Kattagorri Elkartearen
- 09:00 Diana
- 10:14 Pilota partidak Larraungo Pilota Eskolako pilotarien eskutik
- 11:00 Haur Krosa
- 13:00 Patata tortilla lehiaketa.
- 14:30 Herri bazkaria eta bingoa  
"JOSTAILU Gabe Jolastu" saioa.  
Ondoren, herri olinpiadak
- 17:30 Txapel jaurtiketa herriko plazan
- 18:00 Xaibor Disko Festa Karpan
- 19:00 Pintxo Eguna
- 21:00 Play-back lehiaketa.
- 24:00 Gau Tematikoa: Mexikarrak karpan Zopi-  
lotes taldearekin. Ondoren Oixani Dj-a

**12 | OSTIRALA (PILARIKA EGUNA):**

- 09:00 Diana
- 11:00 Meza
- 12:00 Ezpelur erraldoi txikiak
- 13:00 Aizkolariak
- 14:00 Ajoarriero lehiaketa Euskalduna parean

- 17:00 Poker lehiaketa erretiratuen etxean
- 17:00 Pingball laser udaletxeko plazan
- 17:30 Erremonte partidak
- 18:00 Tirikitrauki dantza taldearen emanaldia
- 19:00 Kalejira Musika Eskolako trikitilarietako
- 20:00 Bertsolariak karpan
- 22:00 Zurrakapotea eta ogitartekoak.
- 24,00 Laitoz taldea eta Oixani Dj-a

**13 | LARUNBATA (UMEEN EGUNA):**

- 09:00 Diana
- 12:00 Suziri Txikia. 2017n jaiotako zapi banaketa
- 12:00 Lekunberriko kilikiak
- 12:15 Puzgarriak
- 13:00 Kalderete lehiaketa.
- 16:30 Puzgarriak alde zaharreen
- 17:30 Pilota: Afizionatuak  
Mutilak eskuz eta neskek palaz
- 18:00 Batukada kalejira herrian zehar
- 20:00 Mus Txapelketa Erretiratuen Elkartearen
- 20:00 Kale antzerkia: "Jaixotasunak"
- 24:00 Mikel Sevillano eta ondoren Dj-a.

**14 | IGANDEA:**

- 09:00 Diana
- 11:00 Meza
- 11:30 Ardoaren Eguna
- 11:30 Puzgarriak eta txu-txu trenak
- 13:00 Aizkolariak karpan
- 16:30 Puzgarriak eta txu-txu trenak
- 17:30 Pilota partidak: Profesionalak
- 20:00 Mus Txapelketa Erretiratuetan
- 21:00 Festa Bukaera. Karpan "Puro Relajo"

#BEHINGOZ

EUSKARA  
OFIZIALA  
NAFARROA  
OSOAN

MOBILIZAZIOA



Urriak 27, 17:00  
Iruñea



Irteera puntuak



Amaiera

1

Gazteluko plaza

2

Media Luna

3

Iturruma - Abejeras

Autobus-geltokiko  
belardia

SUSTATU EUSKARA  
NAFARROA HEGOALDEAN.  
ESKATU SASKIA(K) 50€REN TRUKE ETA JASOTAKO  
DIRUAREN %25 BERTAKO EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA.

# 5 URTE EUSKARARI PUZKA



hegoaldeko uzta  
arari puzka

KUTXA BELTZA  
KUTXA ZURIA



# URRIAK 25 - AZAROAK 14

aek **ERRIGORA**



INFO: [ERRIGORA.EUS](http://ERRIGORA.EUS)